

Kati-Katixa Loaren Egunean

Kaixo, kaixo, lagunok.

Gaur ametsei buruz hitz egingo dizuet, baina ez esna gaudenean egiten ditugun amets horiei buruz, ez, ez, ez; lotan gaudela egiten ditugun ametsei buruz baizik. Eta zer dela eta nator ni ametsen kontu honekin? Aurreko batean, loaren mundu mailako eguna zela eta, pentsatu nuen... loak ere badu bere eguna? Eta neure buruari esan nion: horrelako egun bat ospatu beharra dago, Katixa. Eta nola ospatu nuen? Bada, siesta ederra eginez, jakina! Eta, jaiki nintzenean, Gaztezulo aldizkarian, "mundu guztiak noizbait izan dituen ametsik ohikoenen zerrenda" irakurri nuen. Eta zuekin partekatzea erabaki nuen. Hementxe horietako batzuk; adi!

Kotxe batean zoazela, bat-batean kontrola galtzea. Uii! Hori ez da ametsa, hori amesgaiztoa da.

Erortzea, bai, bai, erortzea. Baina ez horrela estropezu eginda, ez, ez, ez. Amildegi batetik edo eraikin altu batetik erortzea. Nik behin izan nuen horrelako amets bat: leihotik erori nintzen, eta ez zegoen lurra topatzeko modurik, behera eta behera eta behera. A ze sustoa! Izerdi-patsetan esnatu nintzen.

Hegan egitea. Hori bai ederra! Arranoen antzera, zeruan hegan! Sasi guztien gainetik sorginak bezala.

Azterketarena. Lagunekin klasean lasai asko hitz egiten ari zarela, bat batean irakasleak serio-serio: Gaur azterketa sorpresa! Zein ez da noizbait salto batean esnatu horrelako amets batekin? Ai! Azterketa garaia ez da garai ona izaten.

Hortza galtzea. Erori al zaizue noizbait hortzen bat ametsetan? Niri bai! Eta nire inguruko askori ere bai. Zer adieraziko du horrek? Gero begiratuko dut sarean.

Eta azkena: Norbait jarraika duzula eta ihesbiderik ez daukazula amestea. Amets hori ere ez da batere gozoa izaten eta, gainera, askotan errepikatzen omen da. Ni oso urduri jartzen nau. Esnatu arte korrika, aizue! Pentsa, behin agujetekin esnatu nintzen!

Tira, ba horiek dira irakurri ditudan batzuk, baina ba omen daude beste asko. Izan al duzue zuek horrelakorik? Zer adierazten ote dute? Ez dakit.

Banoa paseatzera. Espero dut gaur gauean amets goxoak izatea.

Aio, aio, lagunok!